

MUNDUA ALDREBES

Gogoan dut nola, umetan, «Mundua aldrebes» esaten genion udalekuetako egunik xebleenatako bati. Esnatzeko musika arrotza jartzen ziguten bozgorailuetatik. Logelatik irteteko leihoak erabiltzen genituen. Nesken arropak jazten genituen mutilok; mutilona neskek. Eguraldia lagun, kanpoan egiten genituen otorduak eta ez jantokian. Eta nik zer dakit gehiago... Gauzen eguneroko ordenaren kontrakoa egitean zetzan kontua, baina, jakina, ezin den-dena azken muturreraino ukatu: sukaldariak egiten zuten sukaldean, ez haurrok; begiraleek haurroi kontu hartzen jarraitzen zuten, ez alderantziz. Gainera, egunerokoari uko egiteak ez du aukera bakar bat mugatzen eta egiten diren aukerak posibilitateen arbuio gisa proposatzen dira, errealitateenak baino gehiago. Inoiz, haurron bapateko ekimenez, manifestazioa egin genuen espainiar bandera eta guzti. Ez noski, gainerako egunetan ikurriñarekin egiten genuelako (ez genuen egiten; segur aski ilegala edo legeztatu berria izango zen oraindik), horrela ibiltzea guretzako mundu aldrebesaren erakusgarri zelako baizik. Edo batek daki zergatik. Gauez guardia zibilen bisita izan zuten gure arduradunek, han (Arabian) nork agintzen zuen gogorazteko edo.

Aurreko larunbatean “mundua aldrebes” eguna egin zuten batzuk Donostia izeneko udaleku partikularrean. Euskal nazionalismoa omen da derrigorrezkoa; espainiar konstituzioa eta EAEko estatutua, berriz, hautazkoak, nonbait. Euskara da hemen nahitaezko hizkuntza; espainola, aldiz, borondatezko aukera. ETAk hildakoek, mehatxatutakoek eta beren senideek ez dute gobernu, prentsa, epaile, polizia publiko edo pribatuaren babesik; Estatuaren errepresio bide legal eta ilegalekin biktimek eta senideek, ordea, etekin pertsonal, profesional eta ekonomiko ikusgarriak lortzen dituzte denbora gutxian. Espainiar nazionalistek ez dute askatasunean bizitzerik Donostian edo Bilbon. Euskal abertzaleak, jakina, munduko demokraziarik aurreratuenak eskain ditzakeen eskubide zibil oroien jabe dira. Eta honelako zenbat errepikatu dizkigute! Kontuz ibili beharko lukete, hala ere, “mundua aldrebes” jokoa urrunegi eramanda, errealitatearekiko lotura oro gal baitezakete. Aznarrek berak galdua duela dirudi, espainiar gobernuaren ordezkari gisa Donostiara larunbatean Atzerri Ministro Ana Palacio bidali duenean. Ez, jauna; tamalez, ez dugu oraindik euskal estatua sortu.